

EUOPAR BATASUNARI BURUZKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

(2022ko azaroa)

Prentsa oharra

SARRERA

Azterlan honen gaia izan da Euskadiko biztanleek Europar Batasunaren aurrean dituzten pertzepzio eta jarrerak. Landa-lana 2022ko urriaren 10etik 14ra artean egin zen.

Europarekiko interesa handitu egin da, nahiz eta EBren irudia anbibalentea izan

EAEko biztanleriaren % 66k Europarekiko interesa du (% 18k esan dute oso interesatuta daudela, eta % 48k nahiko interesatuta); interes hori handituz joan da 2007an lehen aldiz neurtu zenetik, orduan % 50 baitziren interesatuak.

Europar Batasunarekiko atxikimendu-sentimendua biztanleriaren erdira baino gehixeagora iristen da (% 54), Europako batez bestekoa (% 61) baino zertxobait beherago.

Oro har, EAEko biztanleen % 42k diote Europar Batasunaren irudi oso edo nahiko positiboa dutela, % 39rentzat neutroa da, eta % 15entzat oso edo nahiko negatiboa da. Irudi orokor hori 2006koa baino apur bat negatiboagoa da, baita Batasuneko herrialdeen batez bestekoa baino negatiboagoa ere.

Herritar gehienek (% 58) uste dute Europar Batasuna oso edo nahiko demokratikoa dela, eta biztanleriaren erdiak baino gutxiagok uste du babeslea (% 49), urrutikoa (% 45), etorkizuneko ikuspegiduna (% 44) eta eraginkorra (% 40) dela. Ezaugarri horiek guztiak Euskadin neurri txikiagoan lotzen dira Europar Batasunarekin EBko herrialdeen batez bestekoan baino.

Ezkortasuna egoerari eta aurreikuspen ekonomikoei buruz

Herritarren % 31k uste dute Europako ekonomiaren egoera oso edo nahiko ona dela, eta % 61k oso edo nahiko txarra. Gainera, % 52k uste dute urtebete barru egoera ekonomikoa orain baino okerragoa izango dela, % 23k gaur egungoaren antzekoa izango dela, eta soilik % 13k uste dute hobea izango dela.

Biztanleriaren % 14k uste du gauzak ondo doazela Europar Batasunean, eta % 56k gaizki doazela. Iritzi horrek okerrera egin du 2018tik, orduan % 21ek esan baitzuen ondo zihoazela eta % 36k gaizki zihoazela. Euskal herritarrek Europar Batasunari buruz duten iritzia Espainiako egoerari buruzkoa baino apur bat hobea da, baina Euskadiren egoerari buruzkoa baino nabarmen okerragoa.

Euskal erakundeek EBren erabakietan parte-hartze handiagoa izateko nahia

Euskal herritarren % 71k uste dute EBn hartzen diren erabakiek eragin handia edo nahikoa dutela euskaldunen bizitzan. Iritzi horrek gora egin du 2018tik, orduan % 56 baitziren hala uste zutenak.

% 87k uste dute oso edo nahiko beharrezkoa dela euskal erakundeek EBren erabakietan parte hartzea euskal herritarren interesak defendatzeko, eta % 56ren iritziz Euskadik gaur egun erabaki horietan jokatzen duen papera ez da nahikoa.

Euskal herritar gehienek, % 65ek, uste dute Euskadirentzat ona dela Europar Batasunean egotea, % 26k ez dela ez ona ez txarra, eta soilik % 4k uste dute txarra dela.

Herritar gehienek iritziz EBko kide izateak mesede egiten dio Euskadiren egoera ekonomikoari (% 72), euskal gizartearen modernizazioari (% 67), zerbitzu publikoen kalitateari (% 57) eta Euskadik munduan duen posizioari (% 57); iritzia zatiago dago Euskadiri bere kultura eta nortasuna mantentzean mesede egiten dion ala ez erabakitzeko orduan (% 43k uste dute mesede egiten diola, eta % 42k ez diola mesede egiten).

EBren erabakimena handitzearen aldeko iritzia

Euskal biztanleriaren % 60 Europar Batasunaren erabakimena handitzearen alde dago, eta % 21 gaur egun bezala mantentzearen alde. Zehazki, gehienek uste dute EBk erabakitzeko ahalmen handiagoa izan beharko lukeela honako gai hauetan: ingurumena babestea (% 86), inbertsioa eta enplegua sortzea sustatzea (% 84), energia-politika (% 80), osasun-politika (% 77), EBtik kanpoko immigrazio-politika (% 76), gizarte-politikak (% 73) eta segurtasun- eta defentsa-politika (% 69).

Euskal biztanleriaren % 53 oso edo nahiko baikor dago Europar Batasunaren etorkizunari buruz, eta % 40, berriz, oso edo nahiko ezkorra da.

Euskal herritarrei planteatzen zaienean etorkizunean EBn elkartasuna edo eskubide indibidualak izan beharko liratekeen garrantzitsuago, gehienek (% 70) elkartasunaren alde egiten dute; ordenaren eta segurtasunaren edo norbanakoaren askatasunaren gaineko lehentasun bera planteatzen denean, iritzia askoz ere zatituago dago (% 38 ordena eta segurtasuna, % 43 norbanakoaren askatasuna).

Gehienek uste dute Ukrainako gerrak ondorio ekonomiko larriak dituela Euskadirentzat

Euskal biztanleria apur bat zatituta dago Errusiak Ukraina inbaditzeari EBk emandako erantzuna baloratzeko orduan. Biztanleriaren % 49 guztiz ados edo gehienbat ados dago EBren erantzun horrekin, % 36 guztiz kontra edo gehienbat kontra; % 16k ez du iritzirik eman.

Era berean, EAEko herritarren % 50ek egokitzat jotzen ditu Errusiari Ukraina inbaditzeagatik jarritako zigorrak, eta % 35ek ez.

% 87k uste dute Ukrainako gerrak ondorio ekonomiko larriak dituela Euskadirentzat.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\% 3,16$ koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2022ko urriaren 10a eta 14a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 11